

Ikastetxearen Elkarbizitza Plana



OIARTZUN

O.- SARRERA.

1.- ELKARBIZITZA PLANA ETA HEZKUNTZA INTEGRALA SUSTATZEKO EREMUAK ETA IRIZPIDEAK

1.1.- GELAKO JARDUERAK:

1.1.1.-IKASGAIETAN

- Klase bakoitzean
- Klase tarteetan
- Tutoretzatan tarteka

1.1.2. BALORE HEZIKETA

1.2.- JARDUERA OSAGARRIAK:

1.3.- GELAZ KANPOKO JARDUERAK:

1.3.1.- JANGELA

1.3.2. JOLASGARIAK

1.3.3.- LIBURUTEGIA

1.3.4.- IRTEERAK- BIDAIK

1.4.- EGUNEROKO ELKARBIZITZAREN KUDEAKETA:

1.4.1.- DISZIPLINA POSITIBOA

1.4.2.- ONDORIO HEZITZAILEAK

2.- ERANSKINAK

2.1.- IKASLEEKIN ERABILITAKO ERREMINTAK

2.2.- IRAKASLEEKIN ERABILITAKO ERREMINTAK

0.- SARRERA

Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuak (IHP) eskola-komunitateko sektoreek onartutako hezkuntza-aukera adierazten du; hain zuzen ere, ikastetxearen jardueren bidez lortu nahi diren oinarrizko baloreak eta helburuak identifikatzen ditu. Elizalde BHIko IHPa OOGk 2006. urtean onartu zuen. Hori kontuan izanik burutu genuen AJA (Antolakuntza Jardueren Araudia) eta era berean ekingo diogu Elkarbizitza Planari.

Gure Elkarbizitza Planak honakoak ditu xede: ikastetxeko harreman markoa, hartu -emanen nondik norakoa, heziketa integrala eta balore heziketa ezagutu, hausnartu eta sustatu.

Elizalde BHIko Elkarbizitza Plana burutu eta ulertzeko adostutako printzipio orokor hauetan oinarrituko gara:

1.- Ikastetxearen tamaina, giza baliabideak eta beharrak kontuan hartuko dituen partaidetza eta lankidetzaren ahalbidera dezakeen gutxienezko egitura sortzea. Beti ere, eskola komunitateko kide guztien inplikazioa lortu eta harremanak sustatzeko baliagarri izateko asmoz.

2.- Eskola komunitateko sektore guztiak iritxidun pertsona bezala aintzat hartu harreman komunikatiboak sustatzeko. Era berean, bakoitzaren esparru, ardura eta konpetentzia ondo bereizi eta elkarren osagarri izan .

3.- Ikastetxeko behar, nortasun, berezitasun eta testuinguruari erantzun, Ikastetxeari dagokion autonomiarekin.

4.- Ikastetxeko antolamenduak hezkuntza-prozesu osoari, hau da, irakaskuntza inklusibo eta integralari garrantzia emango dio, eta emaitza akademikoaz gain, alderdi intelektualak, afektibo-emozionalak, psiko-sozialak eta fisiko-sexualak kontuan hartuko ditu.

5.- Elkarbizitzarekiko ikuspegi zabala bultzatu, ez gatazkarekin lotutakoa soilik.

6.- Gatazka, krisia, mugimendua, aldaketa, eztabaida, tira-bira, matraka... gure eguneroko errealitatea direnez aukera zein arrisku bilaka daitezke; horiek hazi eta heltzeko lagungarriak izan daitezzen, horiek guztiak ondo kudeatzea izango da planaren xedea.

7.- Elkarbizitzarako eta gatazkak konpontzeko malgutasuna eta irmotasuna orekaz uztartu, giza legetzat sen ona erabili.

8.- Sor daitezkeen arazoak konpontzeko honako jarraibideak hartu oinarritzat: arazoa ezagutu, informazioa alderatu eta erabakia dagokien lekuan hartu, beti ere, neurri hezitzaileenak bilatu eta aurkitu asmoz.

1.- ELKARBIZITZA PLANA ETA HEZKUNTZA INTEGRALA SUSTATZEKO EREMUAK ETA IRIZPIDEAK

1.1.- GELAKO JARDUERAK:

1.1.1. IKASGAIETAN:

- LAN GIROA LANDU:

GELAKO LAN GIROA ETA ELKARBIZITZA HOBETZEKO NEURRI OROKORRAK

KLASE BAKOITZEAN

- 1.- Mahai errenkadak zaindu.
- 2.- Lurra txukun gorde.
- 3.- Berokiak pertxeroetan jarri.
- 4.- Motxilak aulki atzean itxita zintzilikatu.
- 5.- Gorputz Hezkuntzako motxilak pertxero ondoan kokatu.
- 6.- Mahai gainean, beharrezkoak direnak bakarrik eduki eta beste guztia ondo jaso.
- 7.- Klase orduetan ezin da jan.
- 8.- Azken klasean dena jaso.
- 9.- Irakaslea azkena atera, gelak hutsik gelditu behar duen bakoitzean.

KLASE TARTEETAN

- 1.- Puntualitatea denon ardura da.
- 2.- Pasillora ezin da irten.
- 3.- Komunera joateko araudia bete.

TUTORETZATAN TARTEKA

- 1.- Apalak txukundu.
- 2.- Mahaiak txukundu.
- 3.- Kasuan kasuko beharrak.

- TALDE DINAMIKA LANDU:
 - ✓ Partaidetza bultzatu
 - ✓ Entzun / hitz egin uztarketa landu.
 - ✓ Testuinguruak bereiztu.
 - ✓ Adeitasuna baloratu.
 - ✓ Arauak baloratu eta betearazi.

- **EBALUATU:**

- ✓ Arloko ebaluazio irizpideetan elkarbizitza irizpideak txertatu.
- ✓ Arloko ebaluazioan elkarbizitza irizpideak kontuan hartu (arlo guztietako programazio laburrak)

1.1.2. BALORE HEZIKETA:

Irakaskuntza eta Hezkuntza batera doazen heinean ikasleek ezagutza eta konpetentzia emozionalean trebatzeak ezinbesteko garrantzia dauka. Batetik, bizitza pertsonala eta profesionala egokia izan dezaten, eta bestetik, osasun eta elkarbizitzari dagokionez ongizatea lor dezaten. Arestian aipatutakoa nahiz eta gure egunerokotasunean lantzen ahalegindu, tutoretza saioetan eta etika eta hiritartasun arloetan jorratzen dira bereziki.

Balore heziketak helburu hauek lantzea du xede:

- Autokontzeptua, autoestima, enpatia landu, norberak bere buruari buruz dauzkan jarrerak, balorazioa eta irudikapenak hausnartuz.
- Gizarteratzeko tresnak eman, eta bakoitzari bere identidadearen osaketan lagundu.
- Berdinen arteko jardueretan parte-harzea ahalbideratu eta talde proiektuak antolatzen lagundu.
- Pertsona guztien eskubide eta aukera-berdintasuna hausnartu.
- Mota guztietako bazterkeriaren aurkako jarrera kritikoa bultzatu.
- Norberari dagozkion ardurak bere gain hartzen ikasi.

1.2.- JARDUERA OSAGARRIAK:

Ikastetxean, ohiko eta eguneroko ekintza akademikoez gain, arautu eta ezaraututako ekintza desberdinetan parte hartzen da. Ekintza horien artean Agenda 21, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua eta Bekoplaza aldizkaria daude, adibidez.

Hauetz gain, ikastetxeak “Arautugabeko elkarbizitza” ere lantzen du ikastetxetik bertatik sustatutako hainbat ekintza esanguratsu eta eraginkorretan. Izan ere, egon badaude Lehen Hezkuntzakoekin batera prestatu beharreko jaialdiak; hala nola, San Tomas eguneko feria, Inauteri-ostiraleko emanaldia edo Elizalde Eguneko prestaketak eta ospakizuna.

Bestalde, DBHkoek soilik antolatutako ekintzak ere aipa daitezke, Euskararen Eguna, Txerri Eguna, ikasketa bidaiarako lan anitzak, Euskara Motibazio Saiok, IKT, Bide Heziketa, Hezkuntza afektibo-sexuala eta Drogomenpekotasunaren prebentzioa, esaterako.

Arestiko ekintza guztiek komuneko xede nagusi bat dute banaka izan ditzaketen helburu zehatzagoez gain. Azken batean, eguneroko bizitzak dakarren elkarbizitzaren eraginez sortzen diren arazoan aurrean, konponbiderako tresna, gaitasun, jarrera, motibazio eta konpromisoak sustatu nahi dira. Horiek lantzeko eta indartzeko aukera eta aitzakia polita eskaintzen dute.

Xede nagusi eta orokor horrek ekintza bakoitzari dagokion zehaztasuna izango du. Horrela, adibidez, HNP eta A 21 proiektuetan ikasleek osatutako batzorde iraunkorrak antolatzen dira, non ikasleek bolondreski hartzen duten parte.

Bestalde, uneko batzorde edo taldeak ere osatu ohi dira San Tomaseko feria, Elizalde Eguna edo Inauteri emanaldiak, besteak beste, aurrera eramateko.

Azkenik, norbanakako garapena sustatzen duten ekintzen artean Hezkuntza Afektibo Sexuala eta Bide Heziketa aipa ditzakegu, batez ere.

1.3.- GELAZ KANPOKO JARDUERAK:

1.3.1.-JANGELA:

- Jangelan geratzen diren ikasle guztiek egunean prestatutako bazkaria jan beharko dute. Ezingo dute nahi dutena edo gustukoa dutena bakarrik jan. Egoera nabarmenak gurasoei jakinaraziko zaizkie.
- Bazkaltiar guztiek menu berbera jango dute. Menu bereziak onartuko dira, betiere mediku-egiaztagiria aurkezten bada.
- Jangelatik ezin da janaririk atera.
- Jangelan jan giroa eragozten dituzten jarrerak ez dira onartuko.
- Jarritako ordutegiak errespetatzea beharrezkoa da. Araua betetzen ez duenak ondorio hezitzaileak jasoko ditu.
- Jangelan geratzen diren ikasleek bazkaldu ondoren ikastetxeko esparruan/ra egon/itzuli beharko dute.
- Gurasoek arrazoitu eta sinatutako baimen idatzia eman behar dute aldez aurretik jangelako ordutegian ikastetxeko esparrutik ateratzeko. Irten behar izanez gero jangelako arduradunari jakinarazi behar zaio.
- Gurasoen baimenaz, institututik kanpo geratzen diren DBHko 3 eta 4ko ikasleek, eskola eremuan gelditzea erabakitzen dutenean, bertako arauak bete beharko dituzte eta arduradunen esanetara egon.
- Jangelako hutsegiteak justifikatu egin behar dira. Horretarako ikastetxeko eredia erabili behar da.
- Eguerdian jangelan gelditzen direnek Institutuko arauak bete behar dituzte.
- Ikastetxeko eremu guztietan arduradunen esanak beteko dira.
- Bazkaldu eta gero gelak giltzatuta geratuko dira.

1.3.2.-JOLASGARAIK

- Klasea bukatu eta jolastokira atera behar da.
- Ikastetxeko eremu guztietan arduradunek ematen dituzten azalpenei jaramon egin behar zaie.
- Ikastetxeko eremu guztietan lan giroa eragozten dituzten jarrerak ez dira onartuko.
- Jolasgaraiko ordutegian ikasleek ezin dute institututik irten. Aipatutako ordutegian ikastetxeko esparrutik ateratzeko alde zuzenak gurasoek arrazoitu eta sinatutako baimen idatzia eman behar dute. Irten behar izanez gero tutoreari edota zaintzako irakasleari jakinarazi.
- Jolasgaraiko zaintzak bi irakasleen artean burutuko dira.
- Zaintzako irakasleek beheko pasilloko atea eta goiko pasilloko gelak giltzatuko dituzte.
- Jolastoki eremua egoki zaintzea eta garbi edukitzea denon ardura da.

1.3.3.-LIBURUTEGIA:

Eskaintza

Liburutegiak zera eskaintzen du:

- Irakurtzeko aukera (bertako liburuak edota norberak dakarrena).
- Etxerako lanak egiteko aukera.
- Lan bat egin behar izanez gero kontsultatzeko aukera.
- Azterketak...prestatzeko ikas gunea.
- Ordenagailuak erabiltzeko aukera.
- Internet-a erabiltzeko aukera.

Arauak

- Liburutegia astelehen, astearte eta ostegunero irekiko da.
- Ordutegia: eguerdiko 13:45etatik 14:30 bitarte.
- Ordu horietan liburutegia erabili ahal izateko alde zuzenak izen-abizenak idatzi beharko dira horretarako jolas-garaian kortxeran jarriko den orrian.
- Zerrendan agertzen ez diren ikasleek ezin izango dute liburutegia erabili ordu horietan.
- Zerrenda horren berri liburutegiko arduradunak, jangelako arduradunak eta jangelako begiraleek izango dute.

- Ordu horietan ikasgelak itxita egoten direnez, bakoitzak behar dituen lan tresnak aldez aurretik hartuko ditu, hau da, goizeko klaseak amaitutakoan.
- Liburutegia erabili behar duten ikasleek ezin izango dute gora eta behera ibili, beraz, saio osoa eman beharko dute bertan.
- Liburutegian isiltasuna gorde behar da, begirunea zor dugulako.
- Liburutegian erabiltzen den materiala (liburuak, entziklopediak...) bere lekura itzuli behar dira, dagoen ordena zainduz.
- Aulkiak jasota utzi behar dira.
- Ordenagailuak erabiliz gero, itzalita utzi behar dira.
- Arau hauez gain, ikastetxean ohikoak diren eskubide eta betebeharrak daude.
- Ikasturte honetan ez da liburu mailegurik eskainiko.

1.3.4.-IRTEERAK - BIDAIAK

- Ikastetxeak barneko elkarbizitza hobetzeko asmoz hezkuntzan lagungarriak diren zenbait ekintza antolatzen ditu. Ekintza horiek ikastetxeak eta mintegiek lantzen dituzten helburuak sustatzeko egiten dira. Halakoetan, ezbeharrak eta arau haustek suertatu ohi dira .
- Ikasle guztiek dute ikastetxeak antolatzen dituen ekintza osagarri eta irteeretan parte hartzeko eskubidea. Hala ere, ikasle batek ikastetxeak antolatzen dituen ekintzetan, arestian aipatutakoak, parte hartzeko eskubidea galduko du bere jarrera desegokien pilaketa edota larritasunaren ondorioz.
- Ikastetxearen kanpoko ekintza eta irteeretan arduradun (irakasle edota laguntzaile) talde bat izanen da eta, ikasleen hobe beharrez, ekintzen sustatzaile eta koordinatzaile nagusiak dira. Ikasleek irakasle edota talde honen aholku, gomendio eta aginduak jarraitu behar dituzte.
- Irteera edo kanpoko ekintza burutzeko ikasleek ekintza horren helburu, egitarau eta arauen berri jasoko dute.
- Inplizituki eta esplizituki azaldu eta jasotako arauak beteko dira, gizalegea oinarritzat harturik.
- Ezbeharren bat gertatuz gero, arduradunen taldeak zer gertatu den ikertuko du eta horren arabera neurriak hartuko ditu arau hauen arabera. Nahiz eta gertaera ikastetxetik kanpo izan ikastetxean dauden arauak aplikatuko dira.
- Egoeraren arabera, arduradunek behin-behineko neurriak jartzeko ahalmena izanen dute. Neurri horiek irteera edo ekitaldia burutzen den bitartean mantenduko dira eta

behin ikastetxera bueltatu ondoren birbegiratuko dira. Neurri hauek ondoren antolatuko diren irteera edo ikastetxez kanpoko ekitaldietan eragina izan dezakete.

- Ezbeharrak arautegiak markatzen duen arabera, jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituenak izan ahal dira eta horrela sailkatuko dituzte arduradunek ikertutakoaren arabera. Sailkapen horren ondorioz jarriko dituzte neurriak.

1.4.- EGUNEROKO ELKARBIZITZAREN KUDEAKETA:

Ikasleak, gizaki diren neurrian, izaki sozialak dira, elkarrekin bizitzekoak. Honez gain, ase beharreko oinarrizko premia batzuk dituzte, bai pertsonalak baita kolektiboak ere. Bestek beste, ongizatearen premia, nortasun premia eta askatasun premia.

Behar horiek arrakastaz aurrera eraman ahal izateko “giza gaitasun” batzuk garatzea beharrezkoa da eta gaitasun hauek gure kulturean, gure errealitatean, gure ikastetxean bertan ... dauden aukeretatik garatu beharko dira. Ikastetxean norbanakako eta taldeko ardurak hartzeko bidean jartzeaz gain, elkarlanean garatuko dira.

Eguneroko elkarbizitzaren kudeaketaren xedea, **disziplina positiboa** tarteko, arau betetze hutsean oinarritzea baino gehiago **autorregulazioa**, **enpatia** eta **akordioa** bilatzea izango da

1.4.1.- DISZIPLINA POSITIBOA

Errespetua, harreman pertsonalak eta komunikazioaren gaitasunak-trebetasunak lantzeko baliabide edota eremu hauek erabiliko dira:

- Tutoretza saioak.
- Gelako lan giroaren kudeaketa.
- Arautegia.
- Auto-erregulazioa eta taldearen erregulazioa .
- Ondorio hezitzaileak.
- Partaidetza zabala.
- Irakasleen koordinazioa.
- Negoziazioa, arbitrajea eta bitartekaritza mekanismoak.

1.4.2.- ONDORIO HEZITZAILEAK

Ondorio hezitzaileak aplikatzerakoan irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Egindako galera, kaltea edo mina erreparatzera zuzenduta egotea.
- Bete ez den arauarekin lotura zuzena izatea.
- Errealistak eta betetzeko modukoak izatea.
- Pertsonen eskubideak zainduko dituztela bermatzea.

ONDORIO MOTAK:

Arau bakoitzak ondorio bat baino gehiago izan dezake.

- Abisua: hautsi den arauaren garrantzia gogorarazi.
- Ikaslearekin elkarrizketa:
 - ✓ Araua gogorarazi
 - ✓ Arauen garrantzia azpimarratu
 - ✓ Enpatia landu
 - ✓ Rolak inbertitu.
 - ✓ Ikasleak araua ez betetzeko dituen zailtasunak aztertu.
- Egindako kaltea erreparatu (ordaindu, zuzendu...) arazoari irtenbidea emateko.
 - ✓ Kalte materiala: desordena/ordenatu, zikindu/garbitu, puskatu/konpondu, galdu/bilatu-itzuli-erosi...
 - ✓ Kalte emozionala: iraindu/enpatizatu-barkamena eskatu, negoziazioa, bitartekaritza.
- Bete ez den arauaren garrantziari buruzko idatzia egin.
- Eragindako kaltearekin zerikusia duen gela/ikastetxe/eskola komunitateren aldeko ekintza bat egin.
- Gurasoekin bilera.
- Eskubideen galera:(kaleraketak, ikasgelan jarduteko aukerarik ez, ekintza osagarri eta irteeretan parte hartzeko aukera eza, etxeraketa...)

Oiartzunen, 2010eko ekainaren 2an

Data hauetan egin, onartu eta berrikusia izan da dokumentua : OIARTZUN, 2010eko ekainaren 2a; OIARTZUN, 2012ko maiatzaren 23an berrikuntzak gehitu zitzaizkion.

2.- ERANSKINAK

Elkarbizitza Plana osatzeko eskola komunitatearen sentsibilizazioa eta partaidetza ezinbestekoa deritzogu. Ikasle eta irakasleen partaidetza sustatzeko item hauek landu dira tutoretza saioetan zein klaustroan. Jasotako erantzun batzuk aurreko grafikoetan ageri dira.

2.1.- Ikasleekin:

GALDEKETA:

GURE GELAKO ELKARBIZITZA

Galdeketa honen bidez gelan zuen arten sortzen diren hartu-emanak zuekin aztertu nahi ditugu. Ondo egiten duguna ezagutzeko eta hobetu beharreko alderdiak berehala antzemateko.

- **Elkarbizitza mailan zein arazo ditugu gelan?. Borobildu zure iritziz gertuen dagoena.**

1. Arazo larriak ditugu.
2. Ez dugu arazorik. Gela honetan elkarbizitza ona da.
3. Arazo batzuk ditugu, gela batetan normalak direnak, ia beti bideratzen ditugunak.

- **Azal ezazu atal bakoitzean zuk antzematen dituzun egoerak, arazoak, ...**

1. Ikaskideen arteko harremanak:

.....

.....

.....

2. Lan giroa gelan:

.....

.....

.....

3. Material eta toki komunen zainketa

.....

.....

.....

- 4, Ikasle eta irakasleen arteko errespetua

.....

.....

.....

- **Nola egiten diegu aurre arazo hauei ikasgelan? Ordena itzazu erabilienetik ezohikoenera 1etik 6ra bitarteko zenbakiekin.**

1. erabiliena eta horrela jarraian 6. ezohikoenera arte.

- Bakoitzak ahal duena egiten du.
- Gure artean hitz egiten dugu konponbidea aurkitu arte.
- Gelako tutoreari aurkezten diogu arazoa.
- Gehienetan irakasleek konpontzen dituzte egoera hauek.
- Zuzendaritza taldeak parte hartu behar izaten du.
- Ez gara arazoak konpontzeaz arduratzen.

- Gelako lan giroa hobetzeko neurri orokor hauek daude. Irakurri.

KLASE BAKOITZEAN	KLASE TARTEETAN	TUTORETZATAN TARTEKA
1.- Mahai errenkadak zaindu. 2.- Lurra txukun mantendu. 3.- Berokiak pertxeroetan jarri. 4.- Motxilak aulki atzean itxita zintzilikatu. 5.- Gorputz Hezkuntzako motxilak pertxero ondoan kokatu. 6.- Mahai gainean beharrezkoak direnak eduki. 7.- Klase orduetan ezin da jan. 8.- Azken klasean dena jaso 9.- Irakaslea azkena aterako da gela hutsik gelditu behar duen bakoitzean.	1.- Puntueltasuna denon ardura da. 2.- Pasillora ezin da irten. 3.- Komunera joateko araudia bete.	1.- Apalak txukundu. 2.- Mahaiak txukundu. 3.- Kasuan kasuko beharrak.

- Irakurri ondoren, neurri berririk planteatuko zenuke?, premiarik ikusten duzu?. Zein/zeintzuk?:
 Saia zaitez azaltzen:

.....

.....

.....

.....

2.2.- Irakasleekin:

MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN

A) Ondoko esaldi guztiak lasai irakurri eta zure adostasun maila adierazi 1etik (guztiz kontra) 4ra (guztiz ados).

Emakumea Gizona

	KONTRA	ADOS		
BAIEZTAPENAK				
1. Elkarbizitza berez ez da helburua, irakatsi eta ikasi egiten dela bermatzeko bide baizik.	1	2	3	4
2. Ikastetxearen antolakuntza, ikasgaien programazioak, metodologia harreman motak... gatazka desberdinak sortarazi ditzakete. Beraz, ez dugu pentsatu behar gatazka guztien kausa ikasleen edo irakasleen arazo pertsonalak direnik.	1	2	3	4
3. Gure pentsamenduek gure emozioak eta sentimenduak baldintzatzen dituzte eta horiek gure jokabidea markatzen dute. Hortaz, pentsamendu, sentimendu eta jardueraren arteko koherentzia funtsezkoa da norberaren nahiz ikastetxearen ongizaterako.	1	2	3	4
4. Ikastetxeko elkarbizitzan irakasleek euren lanari buruzko hausnarketa egiteko duten gaitasunak eragina du. Baita ikasleei interes-, gogo-, emozio-, sentimendu- eta ideiak adierazten lagunduko dieten metodologia berriekin esperimentatzeko dituzten gaitasunak ere.	1	2	3	4
5. Diziplina arazo guztiak, arautegi on batekin konpontzen dira.	1	2	3	4
6. Ikastetxeetan etengabe elkarbizitzari buruzko kexak izaten dira, baina ia inork ez dio gaiari behar bezala heltzen elkarbizitza kudeatzeko programa bat eginez.	1	2	3	4
7. Batzuetan, ikasleekin izaten ditugun gatazkak edo ikasleen artekoak, egoera pertsonalen ondorio izaten dira. Izan ere, sentitzen duten segurtasun falta, arreta edo afektu beharrari erantzun bat bilatzeko modu bat dira.	1	2	3	4
8. Ikastetxeko estamentu guztiek, eta batez ere ikasleek, benetan parte hartzeko bideak izateak, batetik, pertenezia sentimendua sustatzen du, eta, bestetik, eskolako giroa eta elkarbizitza hobetzen laguntzen du.	1	2	3	4
9. Elkarbizitza positiboak, guztion artean (ikasleak, irakasleak, gurasoak eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonala) arau argi batzuk adostea eskatzen du. Autonomia, erantzukizuna eta hezkuntza-komunitatekideen aldaketarako eta hobetzeko gaitasuna sustatzen duten arauak.	1	2	3	4
10. Ondo ordenatuta dagoen gelan (edo ikastetxean), norberak garbi baldin badu zer egin behar duen eta nola, zer espero duten besteek berarengandik, normalki, ez da elkarbizitza arazorik izaten.	1	2	3	4
11. Aisialdirako espazioak, jantokiak, pasabideak, autobusak.. autoerregulatu egiten dira eta bertan ez da aldaketarik egin behar, ez baitute ikasketaren garapenean eraginik.	1	2	3	4

12. Indarkeria ikasi egiten da eta desikasi ere egin daiteke.	1	2	3	4
13. Elkarbizitza Plan on batean, gatazkak konpontzeko metodologia-proposamenak egiteko unean lehentasuna eman beharko zaie gatazkaren protagonistek dituzten emozioei eta elkarrizketarikausak; arrazoiak zeintzuk diren aztertu behar da.	1	2	3	4
14. ...				

B) Galdesorta bukatu eta gero, oinarritzotzat jotzen dituzun hiru gai aukeratu. Azpimarratu nahi duzun ideia era positiboan eta guztiz argi gera dadin, esaldiak berridatzi.

1.

2.

3.

Komentarioak eta oharrak: